

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

FABRIK

Aurkeztuko dugun proiektua "Fabrik" du izena. Gazteentzako leku bat izango da, hainbat ekintza egiteko ahalmena emango dietena.

JATORRIA:

Gure herrian, Sestaon, zegoen fabrika gunea aprobetxatuko dugu. Aspaldi fabrika bat zegoenez, hortik hartu dugu izena.

DESKRIBAPENA

Ekintza ugari egiteko gunea izango da:

- Aisialdia: Diskoteka, tabernak, gune berdea, zinema, aretoak...
- Didaktikoa: Ikasteko gunek, aretoak...

Ekintza horiek hiru gunetan bananduta egongo dira:

- Diskoteka gunea: Gauetan 18-36 arteko gazteak bertan joan ahal izango dira, festara.
- Gune didaktikoa: Bertan, hainbat ekintza egin ahal izango dira. Alde batetik, lokalak egongo dira, gazte ekintzaileak sustatzeko, haien negozioa jartzeko. Bestetik, aretoak eta ikasgelak, gazteentzat hitzaldiak egongo dira eta ikasteko gunek.
- Gune berde bat, denbora aire librean igarotzeko.



